



pk Kutxabankeko langile-taldea

2013ko abenduaren 31ko langile-taldeari buruzko datuak aintzat hartuta, langile-taldearen aldi behingo azterketa egiteko unea iritsi da. Etena egin, eta orain eta hemen "nolakoak" garen ikusteko unea, alegia.

Abenduaren 31n, **4.514 langile gara**, geografikoki era honetan banatuta:




Adinari dagokionez, lan-bizitzako tarteko etapa ordezkatzan duten pertsona gutxi daudela ikusiko dugu; denboraldi batean ez baitzituzten langileak kontratatzen, "lurralde naturaletako" Udal eta Probintzia-ko Aurrezki-kutxek 90eko hamarkadan egindako bat-egiteen ondorioz. Irakaspena jaso badugu eta egiazki atzetik datozenei Kutxabank hobea utzi nahi badiegu, arazo hori berriz gertatzea saihestu behar dugu.

Sexuari dagokionez, honela dago banatuta Kutxabanken langile-taldea: emakumezkoak dira % 52 eta gizonezkoak % 48.



Ehuneko hori, alabaina, ez da batere uniformea langile-taldea adinka sailkatzen badugu. Izan ere, alde nabarmena dago langile-talde "zahar" eta "berriaren" artean.

Lurraldeen arabera ere aldeak sumatzen al dira adin-tarteei dagokienez?



Bizkaian, 51 urtekoak edo hortik gorakoak dira langileen % 45,89; Araban, % 56,67 eta Gipuzkoan soilik % 33,64k gainditzen dute adin hori.

ADINA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GAINERAKOA
>51	289	742	440	61
	%56,67	%45,89	%33,64	%5,65

Azken 10 urteetan Kutxabank aplikatu

diren txandakatze-baimen eta -kontratuen programa da, hain justu, alde hori egotearen arrazoi nagusia. Programa horrek ekarri zuen langile-taldea pixkana gatzetzen joatea, Erakundea uzten zutenak ordezkatzeko egin ziren kontratazioen bitartez. Gai hori berriro aztertu beharko litzateke, Kutxabanken aplikatzeko dauden aukerak ikusteko.